



Europako mugaz gaindiko eta eskualde arteko lankidetzaren aukerak:

Proiektuen finantzabideak
Nafarroan

Nafarroa mugako lurraldea da, aukera bihurtzen den ezaugarri geografikoa, eta ateak irekitzen dizkie Europar Batasunak eremu horietarako bere kohesio-politikan sartzen dituen finantza-bide batzuei.

Baina, gainera, Nafarroa bereziki proaktiboa da mugaz haraindiko politiketan. Horren erakusgarri dira Pirinioetako Lan Komunitatean eta Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroeskualdean duen parte-hartze aktiboa edo Pirinio Atlantikoetako Departamenduarekin sinatutako lankidetzak-akordioa.

Lankidetzarako aukera horiek Nafarroako gizartera hurbiltzeko asmoz, Herritarrekiko Harremanetako Departamentuak gida hau prestatu du, Nafarroak eskura ditzakeen eskualde arteko eta mugaz gairako finantzazio mekanismoak biltzen dituena.

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



AGENDA
2030

Departamento de Relaciones Ciudadanas – Herritarrekiko Harremanetako Departamentua

Dirección General de Acción Exterior – Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusia

www.accionexterior.navarra.es

cooperacion.transfronteriza@navarra.es

+34 848 421 981

Nafarroak eskuragai dituen funtsen eskema

EB Interreg funtsak

2014-2020 ALDIAN NAFARROAK IZAN DUEN ETEKINA

POCTEFA	SUDOE	EREMU ATLANTIKOA	INTERREG EUROPE
70 proiektu	8 proiektu	4 proiektu	8 proiektu
20,45 milioi	7,40 milioi	0,70 milioi	2,5 milioi

POCTEFA: Espainia, Frantzia, Andorrako Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa Eragilea. / **SUDOE:** Hego Mendebaldeko Europako Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa Eragilea: Espainia, Frantzia, Portugal eta Andorra. / **EREMU ATLANTIKOA:** Eremu Atlantikoko Eskualdeen arteko Lankidetzarako Programa Eragilea: Espainia, Frantzia, Portugal eta Irlandako eremu atlantikoa. / **INTERREG EUROPE:** Eskualdeen arteko Lurralde-lankidetzarako Programa Eragilea: EBko 27 kideak, Norvegia eta Suitza.

Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa Euroeskualdeko Funtsak

FINANTZABIDEAK. 2014-2020 BALANTZEA.

Euroeskualdeko herritartasunaren dirulaguntzak	Ezagutzaren ekonomiaren dirulaguntzak	Lankidetzaren estrategikoak
114 proiektu	32 proiektu	13 parteneriatu
2,20 milioi	1,70 milioi	1,56 milioi

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak

Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiak, gainera, funts propioen lerro bat du mugaz gaindiko hurbileko lankidetzaren sustatzeko.

POCTEFA

www.poctefa.eu/

POCTEFA 2021-2027 da Espainia-Frantzia-Andorra INTERREG VI-A Programaren akronimoa. Lurralde-lankidetzarako Europako programa bat da, hiru herrialdeen arteko mugako lurraldearen garapen jasangarria sustatzeko sortua.

Kudeaketa Agintaritza


Pirinioetako Lan Komunitatearen Partzuergoa (PLK); Jakan (Huesca) du egoitza.

Lurralde hautagarria:

Espainia: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia, Nafarroa, Errioxa, Huesca, Zaragoza, Bartzelona, Girona eta Lleida.

Frantzia: Pyrénées-Atlantiques, Ariège, Haute-Garonne, Pyrénées-Ekialdekoak eta Hautes-Pyrénées.

Andorra: lurralde osoa.



2021-2027

aldirako funtsak

243.079.964 €

Finantzaketa-tasa

%65 (Estatu-laguntzen menpe dauden entitate eta jardueretarako salbuespenekin).

Helburuak

Berrikuntza eta eraldaketa digitala, balio ekologikoak, gizarte-balioak, mugaz gaindiko espazioaren egituraketa, gobernantza.

Entitate onuradunaren profila

Nortasun juridikoa duten entitate edo erakundeak, publikoak zein pribatuak (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).

Lankidetzeta-mota

Gutxienez bi estatu parte-hartzailetako bazkideek osatuko dute lankidetzeta (ES-FRA-AND). Onuradun nagusiak Espainiakoa edo Frantziakoa izan beharko du.

SUDOE

www.interreg-sudoe.eu/


Interreg Sudoe programak (Interreg VI-B Europa Hego-mendebaldea Lankidetzaren Programaren laburdura) Europako hego-mendebaldeko eskualde-garapena babesten du, EGEF Funtzaren bidez nazioz gaindikoa proiektuak finantzatuz.

Kudeaketa Agintaritzak:

Kantabriako Gobernuak; Santanderren du egoitza.

Lurralde hautagarria:

Espainia: autonomia-erkidego eta hiri autonomo guztiak, Kanariar Uharteak izan ezik; **Frantzia:** Akitania Berria, Occitanie eskualdeak, Auvergne-Rhône-Alpes eskualdea eta Auvergne eskualde zaharra. **Portugal kontinentalak;** **Andorrak** hirugarren herrialde gisa parte hartzen du.



2021-2027

aldirako funtsak

106.260.516 €

Finantzaketa-tasa

%75 (2014-2020 aldia).*

Helburuak

Ikerketaren eta garapenaren, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasunaren, klima-aldaketaren eta ingurumen-arriskuen eta abarren inguruko arazo komunak aztertzea.

Entitate onuradunaren profila

Nortasun juridikoa duten entitate edo erakundeak, publikoak zein pribatuak (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).

Lankidetzaren mota

Gutxienez bi herrialde parte-hartzailetako bazkideek osatuko dute lankidetzak. Horietako bat, gutxienez, EBko estatu kideetako izango da.

* Sudoe programak oraindik ez du iragarri 21-27 aldirako finantzaketa tasa.

EREMU ATLANTIKOIA

www.atlanticarea.eu


VI-B Interreg Eremu Atlantikoa izeneko programak nazioz haraindiko lankidetzeta-proiektuak babesten ditu 4 herrialdetako eskualde atlantiarretan. Helburuak dira berrikuntzaren, baliabideen eraginkortasunaren, ingurumenaren eta kultura-ondasunen arloan eskualdeek dituzten erronkei erantzutea, eta eskualdeen garapena eta hazkunde iraunkorra bultzatzea.

Kudeaketa Agintaritzak:

Iparreko Eskualde Kontseilua (Portugal); Oporton du egoitza.

Lurralde hautagarria:

Espainia: Galizia, Asturiasko Printzerria, Kantabria, Euskadi, Nafarroa, Erioxa, Andaluzia eta Kanariak. **Frantzia:** Basse-Normandie, Haute-Normandie, Pays de la Loire, Bretagne, Akitaine, Limousin eta Poitou-Charentes eskualdeak. **Irlanda:** Norther and Western, Southern eta Eastern and Midland eskualdeak. **Portugal:** Ipar Eskualdeak, Algarve, Erdialdea (PT), Lisboako metropoli-barrutia, Alentejo, Regiao Autónoma dos Açores eta Regiao Autónoma de Madeira.



2021-2027

aldirako funtsak

113.075.964 €

Finantzaketa-tasa

%75 (2014-2020 aldia)*

Helburuak

Itsas-berrikuntza lehiakortasunerako, itsas-ingurumena, Europa sozialagoa, gobernantza.

Entitate onuradunaren profila

Nortasun juridikoa duten entitate edo erakundeak, publikoak zein pribatuak (enpresa pribatuak, erakunde publikoak eta irabazi asmorik gabeko entitateak).

Lankidetzeta-mota

Gutxienez programako bi herrialdetako bazkideek parte hartuko dute, eta onuradun horietako bat gutxienez EBko estatu kide batekoa izango da.

* Eremu Atlantikoaren programak oraindik ez du iragarri 21-27 aldirako finantzaketa tasa.

INTERREG EUROPE

www.interregeurope.eu/


Interreg Europek (Interreg VI-C) Europa osoko eskualdeetako eta tokiko gobernuei politika hobekak garatzen eta aplikatzen laguntzen die, konponbideak eta ikaskuntza partekatuz, pertsonentzako eta tokiarentzako eragin integratu eta jasangarria lortzeko.

Kudeaketa Agintaritzak

Hauts-De-Franceko Eskualdeko Kontseilua, egoitza Lillen (Frantzia) duena.

Lurralde hautagarria

EBko 27 estatu kideak, Norvegia eta Suitza.



2021-2027

aldirako funtsak

379.482.670 €

Finantzaketa-tasa

%70 edo 80, entitatearen izaeraren arabera.

Helburuak

Eskualdeen garapenerako politika eraginkorragoak lortzeko gaitasun instituzionalak eta alderdi interesatuak indartzea, bereziki lurralde jakin bat kudeatzeko agindua dutenak.

Entitate onuradunaren profila

Eskualdeetako eta tokiko gobernuek eta baldintza jakin batzuk betetzen dituzten erakunde pribatuak.

Lankidetzak-mota

Gutxienez hiru herrialde parte-hartzaitako bazkideek osatuko dute lankidetzak. Horietako bi, gutxienez, EBko estatu kideetakoak izango dira.


AKITANIA BERRIA, EUSKADI, NAFARROA EUROESKUALDEA

www.euroregion-naen.eu/eu/

Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa. Hiru eskualde, bi herrialde, lurralde bat. Garapen ekonomiko, sozial eta kulturalerako proiektuak garatzeko lankidetzarako espazio komuna da Euroeskualdea; mugaz gaindi, eskualdeen artean eta Europa mailan.

Lurralde hautagarria

Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa.



Bestelako finantzabideak

Partenariatu estrategikoak: Euroeskualdearen estrategiarekin bat egiten duten proiektu egituratzaileak, norgehiagokaren mende ez daudenak, eta Euroeskualdearen organoei (zuzendaritza, batzorde exekutiboak eta batzarra) aurkezten zaizkienak, beraiek onets ditzaten. Finantzaketa hiru urtera mugatua dago, eta urteko 40.000 eurokoa da batez beste.

Funtsak*

1. Euroeskualdeko herritartasunaren urteko deialdia (martxo).

500.000 €

Lehentasunak: kultura, hezkuntza, gazteria, kirola, egungo gizarte erronkak eta eleaniztasuna.

2. Ezagutzaren ekonomiaren urteko deialdia (iraila).

400.000 €

Lehentasunak: aeronautika, aeroespaziala, fabrikazio aurreratua, automobila, nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industria, osasuna, bio-osasuna, silver economy, energia berriztagarriak, itsasoko eta itsasertzeko ballabideak, eraikuntza jasangarria eta zura.

Finantzaketa-tasa

%50 (proiektuak gutxienez
%20ko autofinantzaketa izan beharko du).

Entitate onuradunaren profila

Pertsona juridikoak, publikoak edo pribatuak, autonomoak eta/edo banakako enpresaburuak.

Lankidetzeta-mota

Hiru lurraldeetako bazkide bat, gutxienez, izan beharko du lankidetzak.

* Kopuruak azken deialdiak dira: aurrekontuko diru-hornidura urtero onesten da.


NAFARROAKO GOBERNUAREN DIRULAGUNTZAK

https://accionexterior.navarra.es/eu/web/accion_exterior/ayudas-transfronterizas

Nafarroako Gobernuko Kanpo Ekintzarako Zuzendaritza Nagusiaren dirulaguntzak, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren arteko mugaz gaindiko harremanak garatzen eta indartzen lagunduko duten lankidetzak jarduerak sustatzeko.

Lurralde hautagarria

Nafarroa eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua.



2022ko funtsak

1. Toki entitateen proiektuak finantzatzeko.

20.000 €

2. Gizarte elkarten proiektuak finantzatzeko.

20.000 €

Finantzaketa-tasa

%100 (gehienez 5.000 euro proiektu bakoitzeko).

Helburuak

Esperientziak trukatzea, sareak sortu eta finkatzea, mugaren bi aldeetako herritarren mugikortasuna, mugaz gaindiko eta Europako gaiak zabaltzea, oztopoak atzematea.

Entitate onuradunaren profila

Toki entitateak eta gizarte entitateak, helbide sozial eta fiskala Nafarroan duten irabazi asmorik gabeko entitate gisa legezko izaera dutela frogatzen dutenak.

Lankidetzak-mota

Proiektuak Pirinio Atlantikoetako Departamenduko entitate batekin elkarlanean eginen dira eta hark sostengu-gutun bat idatzi beharko dio nafar kideari.

